



Brasilgo Eredu Energetikoa eta Giza Eskubideen
Urraketa, Presek Kaltetutako Emakumeen Bizimoduan





aurkibidea

- 4 Presak eta giza eskubideen urraketa
- 6 Brasilgo emakumeak
- 8 Presek kaltetutako emakumeen giza eskubideak: urraketa nagusiak
- 18 Emakume kaltetuen borroka



João Zinclar

Presak eta giza eskubideen urraketa



Bere 20 urteko ibilbidean, MABk jakinarazi egin nahi izan du nolako garapen-ereduaren zerbitzura eraikitzen diren Brasilgo presak. Horretarako, honako galdera honi erantzun nahi izan dio: energia, zertarako eta norentzat?

Gure gizartean, enpresa handiek energia darabilte, langileen emankortasuna azkartzeko eta talde pribatu handien esku ahalik eta irabazi-asmo handiena metatzeko eta desjabetzeko. Brasilen, enpresa transnazionalak dira energia elektriko gehiena kontrolatzen dutenak, herrialdeko energiaren banaketaren %70 eta sorkuntzaren %30 euren esku daude-eta. Bestetik, zentral hidroelektrikoek ekoiztako energia guztiaren %30 inguru 665 enpresa handik kontsumitzen dute.

Brasilen, bi milatik gora presa eraiki dituzte. Hori dela eta, milioi bat lagun baino gehiago bota dituzte euren etxe eta lurretatik, eta gehienek (%70ek) ez dute inolako kalte-ordainik jaso. Gaur egun, 1.443 presa gehiago eraikitzeko ahalmena dagoenez, beste milioi bat lagun ar-

tean izan dezakete eragina hurrengo 20 urteetan.

2010eko urrian Gizakien Eskubideen Defentsarako Kontseiluak (CDDPH) onartutako “Presek Kaltetutakoek” Batzorde Bereziaren txostenaren arabera, giza eskubideak urratzean, giza eskubide urraketa larriak eta desberdintasun sozial larriak areagotu egiten dira, eta gizarte, famili zein giza arloko desegituraketa eta miseria sortzen dira¹.

Presek kaltetutakoek egunero-egunero bizi dute egoera hori. Erakundeak 20 urteko esperientziaren bidez egiaztatu ahal izan du Brasilgo estatuaren eta presak eraikitzen dituzten enpresen jarduna diktatoriala dela eta indarkeria ankerraz inposatzen dietela bertako bizilagunei.

Biztanleen premiak eta natura errespetatzen dituen eredu energetiko berria eratzeko garatutako ahalegina handia izan den arren, estatuaren, enpresen eta agentzia arautzaileen jarduna kaltetutako erkidegoen eskubideen onspenaren aurkakoa da oraindik ere.

¹CDDPH Brasilgo estatuko organoa da, eta honako hauexen baliokidea dela esan daiteke: Amerikako Estatuaren Erakundeko Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea (OEA) eta NBEko Giza Eskubideen Batzordea. Kontseilua 1964ko martxoaren 16ko 4.319 Lege Federalaren bidez sortu zen, eta behar besteko eskumena dauka, miaketak, ikerketak eta azterketak sustatzeko eta giza eskubideen bermerako arauak eraginkorrak diren ala ez ebaluatzeko. Konstituzio Federalean eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948) dago inskribatuta, eskubideen urraketak salatzen dituzten ordezkariak jaso ditzake, euren jatorria aztertu dezake eta partikularren edo euren gainetik dauden agintaritzen abusuaren eginbideak garatu ditzake.



Brasilgo emakumeak

Brasilgo emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasuna zenbait erara adierazten da: emakumeek laneratzeko zailtasun handiagoak dituzte, emakumeen soldata txikiagoa da, emakumeen osasun eta ongizatearen maila desegokia da, ez dute ordainsaririk jasotzen, askotan etxeko lana ere ez da aitortzen, euren partaidetza oso txikia da erabakietan eta indarkeria sexista zein esplotazio sexuala jasaten dituzte.

Gizonen eta emakumeen arteko aldeak ez dira bakarrik gizartean bete beharreko zereginetan agertzen. Sexu batek bestearen gaineko menderakuntza-harremana dauka, hau da, gizonek emakumeak hartu dituzte mendean. Menderakuntza ideologikoa edo kulturala baino askoz gehiago denez, egoera hori aldatu nahi izanez gero, ez da nahikoa “pentsamoldea aldatzea”. Bere oinarria materiala da, lanaren banaketa sexuala, alegia (Kergoat, 2003).

Historiari begira, sistema patriarkalak zeregin bereziak esleitu dizkie gizoni eta emakumeei: esparru publikoa eta lan emankorra utzi ditu gizonen esku; eta esparru pribatua zein ugalketa, emakumeen esku.

Lanaren banaketa sexual hori bi printzipiotan dago oinarrituta:

1. Bereizketa: “gizonentzako lanak” eta “emakumeentzako lanak” daude.
2. Hierarkizazioa: gizonen lanak emakumeenak baino “balio” handiagoa dauka.

Banaketa hori zilegi egiteko eta menderakuntza ezkutatzeke, azalpen biologikoak ematen dira. Emakumeak etxeko lanez eta zainketez arduratu behar dira, finagoak, xamurragoak eta eztitsuagoak direlako. Emakumeek egindako lana amatasunaren luzapena da, “maitasunagatik” egiten dute eta ez da inolaz ere lantzat hartzen. Hartara, ezkutatu egiten da lanaren banaketa sexuala menderakuntza-prozesuaren emaitza soziala dela eta ez desberdintasun biologikoen emaitza.

Lanaren banaketa sexuala eta emakumeen zapalkuntza kapitalismoa baino lehenagokoak dira, baina kapitalismoak bere egin zituen eta haratago joan zen. Lan kapitalistak emakumeek dohainik egindako lan ikusezin horren premia dauka, bermatu egiten duelako langileak ondo garbitu eta lisatutako arropa eramango dutela lanera, ja-

naia prestatuta izango dutela... Hori dela eta, enpresek kostu gutxiago izango dituzte laneskuan. Horrela, bada, emakumeek ordainsaririk jaso gabe egiten duten lanari esker, langileen lana emankorragoa da.

Banaketa horren ondorioz, emakumeak laneratzten direnean, euren soldata gizonen errentaren “osagarritzat” hartzen dutenez, gaur arte emakumeek gutxiago irabazten dute lan bera egiteagatik.

2000. urtetik, emakumeak nagusi dira Brasilgo biztanleen artean. IBGEko datuen arabera (Brasilgo Geografia eta Estatistika Erakundea), 2004. urtetik Brasilgo familien %30en emakumea “etxeko eta familiako sostengueren” arduradun nagusia da. IPEAren esanetan (Ikerketa Ekonomiko Aplikatuaren Erakundea), gainera, herrialdeko ekonomia arloan aktiboak diren biztanleen artean %40 baino gehiago dira emakumeak.

Horrez gain, IBGEren arabera, emakumeek hilean batez beste jasotako soldata gizonena baino %20 txikiagoa izan zen 2009. urtean. Gizoni dagokionez, 1.682,7 R\$ jaso zuten (garaiko gutxieneko 3,6 soldata); eta emakumeek, 1.346,16 R\$ (2,9). Beraz, Brasilgo batez besteko soldata 1.540,59koa izan zen (3,3 soldata)².

Oro har, egoera halakoxea da, emakumeen lanpostuak (enpleguak eta jarduerak) ezegonkorrenak direlako (historiari begira, emakumeen langabezia-tasak gizonenak baino askoz handiagoak izan dira), enpleguarekin lotune txikiagoa dutelako (ordainpeko eta ordaindu gabeko etxeko lana) eta ospe zein balioespen sozial txikiagoa dutelako (batez ere, zerbitzuen sektorean lan egiten dute: irakasuntza, merkataritza, ostalaritza, elikagaigintza, osasun-zerbitzu teknikoak...).

Bestetik, emakumeen astialdia betetzen duen ordaindu gabeko etxeko lanaren bidez ere islatzen da genero-desberdintasuna. Brasilgo emakumeen batez besteko asteko etxeko lanaldia 29 ordu eta 21 minutukoa da, honako zeregin hauek kontuan hartuta: garbiketa, janari-prestaketa eta lisaketa (17 ordu eta 44’); umeen zainketa (10 ordu); eta adinekoen edo gaixoen zainketa (ordubete eta 37’). Gizonen etxeko lana, ordea, 8 ordu eta 46 minutukoa baino ez da (6 ordu eta 15 minutukoa, emakumeen iritzi). Beraz, gizonen batez besteko asteko etxeko lanaldia emakumeena baino hiruzpalau aldiz laburragoa da.

²Enpresen Katastro Nagusia, IBGEk 2011ko maiatzaren 25ean zabalduakoa.



João Zinclar

Presek kaltetutako emakumeen giza eskubideak:
urraketa nagusiak

Emakumeek genero-zapalkuntzaren ondorioz sufritzen dute, baina, horrez gain, kaltetuenak ere badira, presak eraikitzean gizarte, famili zein giza desegituraketa eta miseria sortzen direnean. Presek emakumeen bizimodu-
duan eragindako zenbait ondorioren adibideak emateko, zenbait egoera adierazgarri azalduko ditugu. Izan ere, emakumeen eskubideen urraketa nagusiak lanaren zein partaidetza politikoaren arloetan, eraikuntza-enpresekiko harremanean, elkarbizitza bateratu zein familiarrean, zerbitzu publikoen lorpenean eta sexualitatean ematen dira, gure ustez.

A) EMAKUME KALTETUAK ETA LANAREN MUNDUA

Presen guneetan, emakumeen eskubideen urraketek lotura zuzena dute lanaren arloarekin. Historiari begira, emakumeei etxeko lana eta familiaren zainketak esleitu dizkiete, eta, horrez gain, emakume gehienek lan-egoera informala bezain ezegonkorra ere bada. Ezaugarri horiek erabakigarriak dira, emakume kaltetuen egoera larriagotzeko orduan.

Lanari dagokionez, honako hauexek dira urraketa nagusiak:

Etxeko lana eta nekazaritzako lana ez aitortzea

Lan egiten zuenentz galdetu ziotenean, Rôndoniako Santo Antonioko presak kaltetutako emakume batek ezetz erantzun zuen. Bere eguneroko jardueri buruz galdetu ziotenean, honako hauxe erantzun zuen:

“Nekazaritzan lan egiten dut. Jaiki egiten naiz, animaliei jaten ematen diet eta lurra lantzen dut, baina, lehena-go, indabak eta ongarriak uzten ditut sutan, eta gizonak hirian saltzen dituen barazkiak biltzera itzultzen naiz”.

Nekazaritzan egindako lanari eta “atsedenaldietan” egindako artisau-lanei esker familiaren errentan egiten dute euren ekarpena, baina, horrez gain, oro har emakumeek biziaren ugalketarako funtsezkoa den etxeko lana oso-osorik hartzen dute euren gain. Emakume horren diskurtsoa etxe-jabeak diren emakume nekazari askoren diskurtsoaren antzekoa denez, agerikoa da emakumeek

eurek ere ez dituztela eguneroko zereginak lantzat hartzen, batez ere, errenta zuzenik sortzen ez dutelako eta jarduera horiek “emakume-betebeharren” eta “familiaren zainketarako berezko dohainaren” barruan daudelako.

Edonola ere, emakumeek etxeko lanean dituzten mugak ez dira batere naturalak: euren eraketa historikoa da, eta emakumeen zapalkuntzan daude oinarrituta, gizona ez bezalako den maila beheagoko lan-mota garatzen dutelako. Emakumeen askapena lortzeko, euren lana aitortu eta balioetsi egin behar da. Hori dela eta, lan hori ez aitortzea giza eskubideen urraketa dela uste dugu.



Errenta sortzen duen lana galtzea

CDDPHko Batzorde Bereziaren arabera, “emakume askok euren lan-baldintzak eta biziraupena galdu zituzten, presaren eta hiriaren suntsipenaren ondorioz”. Hona hemen Minas Gerais-eko Aimorés-eko presak kaltetutako emakumearen lekukotasuna:

“Jatetxea neukan, eta langileei jaten ematen nien: 550 bazkari eta 400 inguru afari. Nire jatetxea jardunik gabe utzi zuten luzaroan. Eurekin egin nuen protestaldia, kamioiek bi hatz hauts uzten zituztelako hemendik igarotzen zirenean. Bertan, bizirauteko neukan beti... Euren gizarte-laguntzaileak ikuskapena egin zuen, baina ez zidan kopiari eman. Nik justiziara jo nahi nuen, baina berak ez zidan eman, partzuergoarentzat lan egiten zuelako. Honantz etorri nintzenean, ez zidaten lehengo jatetxean

sartzen utzi. Saltegia galtzeagatiko fondoa zegokidala esan zidaten. Jatetxean nituen gauzak ekarri zizkidaten, eta uralitaz eraiki behar izan nuen biltegian jarri nituen. Den-dena galdu nuen, autoa saldu nuen, jatekoa usteldu egin zen, nire ondasunen zati bat lapurtu zuten... Oraindik ere, ez dute non lan eginik. 35.000 R\$ eskatu zizkidaten merkataritza-gune berrian jartzeko. Baratzean landatzen dut, biziraun ahal izateko. Kobratzailea daukat atean; eta nire izena, justizian... Urik, argirik eta jatekorik gabe geratu nintzen. Bizimodu ona neukan, eta suntsitu egin zidaten. Depresioak jota nengoen, eta ia-ia hil egin nintzen, nire presioa handi-handia zelako. Honako hauxe esan zidan gizarte-laguntzaileak: “Ah, Sonia, aurrerantzean partzuergoak ez dauka inolako zerikusirik honekin”. Beraz, ez dut berarekin gehiagotan hitz egin nahi. Zenbait lagun gauza bera gertatu zitzairen. Hemen (Novo Ituetan), ez da saltegirik geratzen”³.

Hona hemen beste emakume batek azaldu zuena, presa beraren ondorioz bere diru-iturria galdu zuenean:

“jaietarako apaindurak egiten nituen, oso lan erraza. Urteen joan-etorrian, hobera egin nuen. “X”-k (partzuergoko funtzionarioak) saltegia galtzeagatiko fondorako eskubiderik ez neukala esan zidan. Nire apaindura guztiak suntsitu zituzten: 11 sorta. Hori dela eta, galerak izan nituen. Batzuetan, ez neukan ezer alabari jaten emateko. Amak saltegia zeukan. 4.000 eman zizkioten, eta ez hartzeko esan zioten, ez zeukan ezer”.

Brasilgo sektore informalean edo erdi informalean lan egiten duten gehienak emakumeak dira, Ituretako emakume kaltetuen adibideetan ikusten dugun bezala. Ez da erraza lan horiek beste leku batzuetan ordezkatea, nahitaez lekualdatu behar direnean, behe-prestakuntzakoak direlako eta tokian tokiko biztanleekin menpetasun handia dutelako. Horrez gain, oro har gizonek lurren jabe-

tza-titulua daukatenez, eurentzat errazagoa da presetako kaltetutzat hartuak izatea eta nolabaiteko kalte-ordaina jasotzea. Emakumeek onspen hori ez dutenez, euren galera ekonomikoak handiagoak dira.

Hiri-guneko lanera ez egokitzea

Bestetik, oso garrantzitsua izan arren, enpresek ez dute kontuan hartzen kaltetu gehientzat oso zaila dela hiri-guneko lanera egokitzea, emakume gehienak nekazariak direlako eta lurra bera bizibide dutelako. Hori dela eta, nahitaez lekualdatu behar direnean, hirietako periferiara joaten dira, eta zenbait lanetan jardun behar dute, horretarako prestakuntza egokirik eduki ez arren.

Gainera, familia asko herri aurrefabrikatuetan birkokatzen dituztenez, ezin dute ezer landatu, horretarako lekurik ez dagoelako. Hartara, emakumeak etxeko zerbitzuan lan egiten hasten dira, horrelako merkatuan eskaini dezaketen ogibidea da-eta. Hori dela eta, euren lanindarra are ezegonkorragoa izango da.

Dena dela, landa-ingurunean geratzen diren emakumeen egoera hirira doazen emakumeena bezain larria da, modu berean euren sostengua zein lan-tresnak galtzen dituztelako, oso egoera ezegonkorretan edo informaltasunean lan egiten dutelako, etxeko langile lan egiten dutelako familien etxeetan eta, gehienetan, euren eskubi-deak bermatuta ez dituztelako.

Honako hauxe azaltzen du Santo Antonioko zentral hidroelektrikoko emakume kaltetu batek (kalte-ordaina jaso zuenean, baserria erosi zuen):

“Nahiago izan nuen baserria erosi, horixe bera dudalako bizibidea. Hala ere, ez dakit zelan egingo dudan arrainarekin, behar den moduko janaririk ez neukanean, ibaira joan eta arraina ekartzen genuelako. Gogorra izango da arrantzan ez joatea eta arrain freskorik ez jatea”.

³Aimorés zentral hidroelektrikoa Aimorésko Zentral Hidroelektrikoko Partzuergoakoa da (CHA), eta, Centrais Elétricas de Minas Gerais (CEMIG) zein Vale enpresak dira bertako kideak. Presako lanak 2001eko ekainean hasi ziren, eta zentrala 2005eko uztailean jarri zen abian. Zentraleko urtegia eraiztean, izen bereko udalerriko egoitza zen Ituetako hiria eta Resplendorren zati bat oso-osorik geratu ziren urpean. Guztira, 623 jabetza desjabetu ziren: hiri-guneko 553 (euretatik, 318 zeuden Ituetan bertan) eta landa-inguruneko 70. Orduan, enpresak “Itueta Berria” eraiki zuen, eta, prozesu horretan, era guztietako erreklamazio ugari aurkeztu ziren, lekualdaketa nola egin zen eta biztanleak nola birkokatu zituzten salatzeke.

B) PARTAIDETZA POLITIKOA

*“Emakume,
ahots xamurra edukitzen irakatsi zizuten,
grinaz maitatzen,
maitasunez zaintzen.*

*Hori guztia ez da arazotsua izan behar,
baina ahots sendoagoaren aurrean zure ahoa isiltzen bada,
maitasuna menderakuntza bihurtzen bada
eta zainketak borroka eragozten badu,
ez izan inolako zalantzarik
eta garrasi egin,
gorrotatu
eta irmotasunez kritikatu :
maitasunagatik”
(Lira Alli)*

Bestetik, emakumeen giza eskubideen urraketa dago-kionez, oso kontuan hartu behar da ez dutela sentitzen presak ezartzeko prozesuaren aurka dagoen erkidegoko kideak direnik, azken batean gizonen zeregina delako erabakiak hartzea. Izan ere, gizonak eurak dira bileretan parte hartu eta enpresetako funtzionarioekin negoziatzen dutenak.

Emakumeek ez dutelako inolako kidea-sentipenik prozesu politikoan, esparru publikoan parte hartzen ez dutelako. Batez ere, gizonena izan da betidanik. Horren ondorioz, emakumei herritar-izaera ukatzen diete, ez dituzte eskubidedun subjektutzat hartzen eta gizonak emakumeen eskarien eta gizartearen eragina duten gaien bozeramaile bakarrak dira.

Presa-eraikitzaileek nahita larriagotzen dute egoera hori, kaltetutako erkidegoak banatzeko eta emakumeak borroka-prozesutik aldentzeko, jakin badakitelako emakumeek funtsezko zeregina dutela erkidegoaren sendotasunean eta erresistentzia-prozesuan.

Emakumeak ebazpen-guneetan ez egotea eta euren iritzia kontuan ez hartzea

Askotan, erabaki-esparruetatik kanpo uzten dituz-

te emakumeak, eta euren kideek ere esku hartzen dute jokabide horretan. Erabaki-esparruetan egonda ere, ez da arazoa konpontzen, ordea. Euren partaidetzari buruz galdetzen dietenean, askok bileretara doazela diote, baina “gizonek hitz egiten dutela” edo “hitz egiteko aukera dutela, baina ez dutela euren iritzia kontuan hartzen”.

Honako hauxe baieztatzen du Tocantinseko Formosako presak kaltetutako emakume batek:

*“Etxean, gizonak hartzen ditu erabaki guztiak: zer landatuko duen baratzean eta non landatuko duen. Lagundu egiten dugu, baina ez dugu iritzirik”.*⁴

Emakumeen ahotsa isilaraztea ohikoa izan da gizarte patriarkaleko prozesu historikoaren barruan, bertan gizonak beste gaitasunik ez daukatela uste dutelako. Gizonek, senarrek, nebek eta aitek ez dute ezertxo ere egiten, emakumeek presen ezarpenari buruzko bileretan parte hartu dezaten, jarduera politikorako gai ez direla uste dutelako.

Oinarrizko zerbitzurik ez egotea, emakume kalte-tuen mobilizazioa eta partaidetza bideratzeko

Oso arrunta da erkidego kaltetuak hiri-guneetatik urrun egotea, nahiz eta bilerak, mobilizazioak eta erabaki politikoak bertan gauzatzen diren. Gero, erkidego horietako bizilagunak kaltetuenak dira zenbait arrazoiengatik: ez dute maiztasun handiko garraio publikorik; errepideen egoera ezin txarragoa da; etxean ez dute energia elektrikorik (eta, eduki badute, kalitate txarrekoa da); ez dago haurtzaindegirik, emakumeek seme-alabak zainketapean utzi ditzaten; osasunaren oinarrizko atentzioa ezegonkorra da, osasun-gunerik eta botikarik ez dagoelako; eta ez dago laguntza teknikorako programarik, besteak beste.

Arazo horiek biztanle kaltetu guztien artean dute eragina, baina jakin badakigu emakumeen eskubideen urraketa oldarkorrena dela, emakumeek euren zereginak biderkatu behar dituztelako, biziraupenerako oinarrizko baldintzarik ez egotea familiaren kalterako izan ez da-din. Hau da, azkenean, etxean geratzen dira, eta ez dute

⁴Judite Rocharen Pedagogia Ikastaroko tesinatik ateratako aipamena: Discutiendo Sexualidad con las Mujeres del Proyecto de Asentamiento Formosa: Saberes y Discusiones Teóricas. Goiásko Unibertsitate Federala - Hezkuntza Fakultatea. UFG/INCR/PRONERA hitzarmena.

ekintzetan bete-beteen parte hartzen.

Oraindik ere, badago egoera larriagorik. Horra hor Rondôniako Santo Antonioko presak kaltetutako Joana D'arceko erkidegoan azaldutakoa. Biztanle kaltetuen baldintzen betearazpena eskatzeko mobilizazioa egin behar izan zenean eta euren eskubideen errespetua lortzeko borrokatu behar izan zirenean, obrako eraikuntza-enpresak, Santo Antonio Energiak, hitzarmena sinatu zuen autobus-enpresekin, eta ibilgailu guztiak kontratatu zituen, kaltetuak euren erkidegoetatik mugitzeko aukerarik eduki ez zezaten.



C) ERAIKUNTZA-ENPRESEKIKO HARREMANA

Askotan, eraikuntza-enpresen xantaien eta presioaren lehenetasunezko biktimak dira emakumeak, eta, beste batzuetan, ez dituzte negoziaketa-prozesuko zilegizko solaskidetzat hartzen. Horrez gain, familiarekiko menpetasun ekonomikoaren baldintzapean, ez dituzte kaltetutzat hartzen eta, horren ondorioz, eskubideak ukatzen dizkiete.

“Kaltetuen” kontzeptu patrimonialista eta patriarkala

Presak jartzeko prozesuan, kaltetuen kontzeptu lurralde-patrimonialista da enpresek ezarri dutena. Kontzeptu horren arabera, (lurren, etxeen, saltegien...) jabetza-titulurik ez daukana kanpoan geratzen da zuzenean.

Historiari begira, patriarkatuaren ondorioz⁵, ezohikoa da emakumeek jabetzen tituluak edukitzea. Beraz, euren kideen menpe daude beti. Horrelako titulurik ez daukateenez, ez dituzte kaltetutzat hartzen, eta are zailtasun handiagoak dituzte, kalte-ordainerako eta birkokapenerako eskubidea lortzeko. Hori dela eta, euren menderakuntza areagotu egiten da.

Enpresetako funtzionarioen bortxa

Eraikuntza-enpresetako funtzionarioek genero-bereizkeria indartzen dute, eurek ere ez dituztelako presek kaltetutako emakumeak kontuan hartzen. Etxe batera iristen direnean, “etxeko buruzagiaz”, gizonaz galdetzen dute. Bestetik, sentimenduak ere erabiltzen zituzten bortxatzeko, Rondônian azaldu zuten bezala: gizarte-laguntzaileek amatasuna aipatzen zuten, eta baieztatu egiten zuten “emakumeek seme-alabak benetan maite bazituzten, enpresaren proposamena onartu behar zutela”, edo “emakumeak gizonak konbentzitu behar zituztela, enpresaren proposamena onartu zezaten, familiarentzat onena zelako”. Beraz, erkidegoko emakume eta familien aurkako eraso moral gori-goria zen, inolako zalantzarik gabe.

⁵Aitak emakumearen eta seme-alaben gainean daukan menderakuntzak patriarkatuaren edo aitaren legearen oinarriak ezartzen ditu, emakumeak menderatzeko eta esplotatzeko sistemaren oinarriak, alegia. Sistema horretan, gainera, emakumearen kalterako eratzen da gizonaren boterea, eta hierarkiarako zein genero-desberdintasunerako harremanak ezartzen dira.

Hau da, askotan, enpresetako funtzionarioek fede txarez jokatzten dute, Santo Antonioko presak (RO) kaltetutako emakume batek azaldutakoa kontuan hartuz gero:

“Enpresaren proposamena onartzeko esan zigun gizarlaguntzaileak, presa eta enpresa gure etsaiak ez zirelako. Eskualderako aurrerakuntza ekarri eta bizimodu hobea eman nahi digute. Hirian etxea emango zigutela esan ziguten eta han hemen baino hobeto biziko ginela. Senarrak konbentzitu behar genituela”.

Emakumeak liderrak direnean, funtzionarioekin aurre hitz egiten dutenean eta erkidegoa mobilizatzen dutenean, enpresa azkar-azkar saiatzten da emakume horiek isilarazten, eta kalte-ordainaren zenbatekoa handiagotzen du, eskualdea utzi dezaten. Era berean, informazioa eskuratzeko eta erkidegoak harremanetan jartzeko zailtasunak ere jartzen ditu, Rondonian gertatzen den bezala.



D) FAMILIAKO ETA ERKIDEGOKO ELKARBIZITZA

Ingurumenaren eta gizartearen gaineko eraginak alde batera utzita, emakumeek lurra, lanpostuak, ibaia eta etxea galtzen dituzte, baina, horrez gain, arlo materialetik haratago doazen galera sakonak ere badituzte. Izan ere, depresio-arazo handiak dituzte, eta ilusioa galtzen dute erabat, euren bizimoduak desegituratuta daudela eta senide zein adiskideengandik urrun bizi behar direla ikustean.

Erkidegoarekiko lotuneak galtzea

Erkidegoarekiko lotuneak galtzean, familien arteko babes-dinamika soziala ere galdu egiten da. Izan ere, askotan, auzokideak egunez eguneko zailtasunetarako euskarriak dira, janaririk ez dagoenean, adingabeak zaindu behar direnean edo animaliak jagon behar direnean, besteak beste.

Santo Antonioko presak kaltetutako emakumeak oso kezkatuta daude, ez dutelako oraindik ere Joana D'arceko erkidegoan laguntza bateraturako dagoen sarea haustea nahi:

“Zer egingo dut semea doanean! Semeak bere etxea utzi beharko du, eta ni geratu egin beharko naiz. Hala ere, alarguna naiz, eta semea da baratzeaz arduratzen dena. Zer egingo dut? Nork lagunduko dit?”.

Honako hauxe dio beste batek:

“Ama ezkongabea naiz, eta hazi beharreko hiru seme-alaba ditut. Emakume honek (beste kaltetu batek) nire seme-alabak zaintzen ditu, gauzak saltzera joan behar naizenean. Bera joan egin behar da. Zer egingo dut nik? Batzuetan, ez daukat ezer seme-alabei jaten emateko, eta berak lagundu egiten dit. Nork lagunduko dit orain?”.

Pertsona horiek euren artean eratzen duten lotune bateratu, kultural eta solidarioa familien babeserako benetako sarea da, eta, presa iristean, suntsitu egiten da.

Sare hori hausten denean, emakumeak kaltetu nagusiak dira, eurek mendekoak zaintzen dituztelako eta sostenguaz arduratzen direlako. Askotan, gainera, emakume auzokideen eta senideen laguntza jasotzen dute lan horiek egiteko.

Familiako lotuneak galtzea edo urratzea

*Enpresako langileak heldu ziren,
eta ezer gertatuko ez zela esan zuten.*

(...)

Halako batean, ezustekoa.

*Gurasoak aztoratu egin ziren,
eta neskak apaindu egin ziren.*

(...)

Izan ere, lau mila gizon iritsi ziren.

(...)

*Neska batzuk inplikatu egin ziren,
eta zenbait agindu sinetsi zituzten.*

*Motoak eta autoak omen zituzten,
diru asko.*

Ezkontzeko asmoa zeukaten.

Dena dela, zerbaitek porrot egin zuen.

Inplikatu ondoren,

Sabela hazten hasi zen, eta sufrimendua hasi zen.

Seme-alabak dituzte besoetan inolako atentziorik gabe.

(...)

(Causa y Consecuencia de una Represa, Rosa Aguiar)

Kaltetutako erkidegoetan eragindako desegituraketa familiarra zigor handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino, historiari begira eurek izan dutelako familiarren ongizatearen gaineko erantzukizuna. Desegituraketa hori zenbait erataraz gertatzen da, presak eraikitzen ari diren bitartean edo nahitaez lekualdatu behar direnean.

Presen eraikuntza askotan, kaltetutako neska gazteak obretako langileekin inplikatzeko dira, nahiz eta beste eskualde batzuetan familia daukaten gizonak izan. Neska gazte horiek haurdun geratzen dira, eta bakar-bakarrik (edo beste emakume batzuen eta, batez ere, amaren laguntzaz) hazten dituzte seme-alabak, langileak euren eskualdeetara itzultzen direnean.

Familiak hirietarako lekualdatzen dituztenean, gazte gehienek Brasilgo periferia handietako errealitatea ezagutzen dute: indarkeria, drogak eta estatuko oinarriko zerbitzuen gabezia. Landa-bisitaldietan antzeman ahal izan genuenez, oraindik ere hirira joan ez ziren erkidegoko gazteek hezkuntza jasotzen zuten, elikadura osasungarria zeukaten eta familiarekin zein erkidegoarekin bizi ziren. Lekualdatzean eurentzat eraikitako herri berrian bizitzen hasi ziren familietan, ordea, gauza bera gertatzen ez zela egiaztatu ahal izan genuen.



E) PROSTITUZIOA: KASUEN AZTERKETA

*Irainduta, zapalduta,
jabetuta eta apainduta.*

*Emakumea harresia da, eta duela zenbait milurtekatatik hona
gizonaren larrialdiak geldiarazten ditu,
gizartean xalotasuna, garbitasuna eta bertutea
egon daitezzen.*

(Mujer de Vida, Cora Carolina)

Emakumeen giza eskubideen urraketa aztertzeke orduan, oso kontuan hartu behar da presen proiektu handiak garatzeko aukeratzen dituzten hirietan prostituzioa areagotu egin dela. Oso arazo kezkaigarria da zenbait arrazoiengatik: lehenengo eta behin, ezin dugulako emakume horiek kriminalizatzeko moduko eztabaidarik egin; eta, bigarren, estatua bera delako askotan emakume horiek egoera sozial eta ekonomiko ahulean jartzen dituen emakumeentzako politika publikoak ez ezartzean. Hori dela eta, emakume horiek egoera larri-larriei men egin behar diete: trafikoa, gatibutza pribatua eta prostituzioa. Horrez gain, eragin ekonomiko eta politiko handiko pertsonak horrelako egoeretan inplikaturik daude beti.

Antzemandako zantzu guztien arabera, badirudi pros-



tituzioaren industria agertzen dela presak eraikitzen hasten direnean eta zerikusi handia duela eraikuntza-enpresek eurekin. DESCHA⁶ Plataformaren txostenean salatuenez, "leialtasun-txartela" dago Jiraun bertan, eta, horren arabera, eraikuntza-enpresak soldataren gainetik ere bazegoen 600,00 R\$-ko hileko kreditua ematen zien "langileei, lanera huts egiten ez bazuten, gaixotzen ez baziren, oporrik hartzen ez bazuten eta familia ikustera ez bazihoazen". Eskualdeko sindikatu baten esanetan, tokian tokiko merkataritzak eta, euren artean, prostituzio-klubek inolako arazorik gabe onartzen dute txartel hori.

Jirauko eta Santo Antonioko (RO) presetan gertatutakoa

2008an, Madeira ibaian Jirauko eta Santo Antonioko zentral hidroelektrikoetako obrak hasi zirenetik, Brasil osoko milaka emakume eskualdera migratu dira, langileen diruaren bila. Elkarrekin, Brasilen abian dauden obren harrobi handiena dira zentralak, baita Hazkuntza Areagotzeko Programaren (PAC) erakusleihu nagusietakoa ere. Bi urtean, ordea, Jaci Paran atari zabaleko sexu-merkatu erraldoia da, eta eguneko 24 orduetan dago abian. Bertan, gainera, emakumeak eta nerabeak dira lehengai nagusia. (...) Benetan harrigarria da zeinen hurbil dauden putetxeak eta Jirauko zentralaren eraikuntzako enpresa handiena den Camargo Correko obren harrobia. Atezaintzatik ostatura, lehenengo putetxeetaraino, distantzia ez da 1.200 metrotik gorakoa. Euretako baten izena "Maitasunaren Zentrala" da, gainera.⁷

Porto Velhoko barrutiko Jaci Parann, Jirauko zentral hidroelektrikoko obren harrobia dago. Presa eraikitzeke langileak iritsi zirenean, barrutiko bizilagunen kopurua lau aldiz hazi zen: eraikuntza handieneko epealdian (2011ko otsailean), 40.000 langilek lan egiten zuten bi obretan: 20.000 langilek, Jiraun; eta beste 20.000k, Santo Antonion. Putetxeak ere ugaritu egin ziren, baldintzak oso txarrak izan arren, eta emakumeen zain zeuden gizo-

⁶Giza Eskubideen Urraketak Madeira Ibaiko Zentral Hidroelektrikoetan. Ingurumenerako Eskubidearen Errelatoretzako Ikuskaritza Misiorearen aurretiazko txostena. Brasilgo DHESCA Plataforma. 2011ko maiatzean argitaratu zen:

http://www.dhescbrasil.org.br/attachments/449_2011_madeira_%20missao%20seguimento_revisao3.pdf

⁷Jirauko Zentral Hidroelektrikoa eraikitzeke aukeratutako eskualdeko prostituzioari buruz egindako erreportajeko aipamena. Manausko "A Crtica" egunkarian argitaratu zen

nez bete ziren. Emakumeen zain zeuden benetan, euren zerbitzuak eskaintzen zituzten emakumeen kopurua gizon eskatzaileena baino askoz txikiagoa zelako.

Pedofiliako krimenak eta prostituziorako indukzioa behin eta berriro gertatzen dira Santo Antonion eta Jiraun, Amazonian bertan, Itaipuko zentral hidroelektrikokoa jazo zenetik 40 urte igaro direnean. Presa hori Brasil-Paraguai-Argentina muga hirukoitzean eraiki zuten, eta, bertan, lehen aldiz gertatu ziren horrelako kasuak, lan bila zihoazen pertsonen migrazioaren arabera.

DHESCA Plataformaren txostena kontuan hartuta, Porto Velhoko indarkeria-indizeek gora egin zuten oro har, obrak hasi ostean. Giza hilketa mingarrien kopurua %44 ere handitu zen 2008tik 2010era. Abusuen edo esplotazio sexualaren biktimak ziren neska-mutilen eta nerabeen kopurua ere %18 igo zen, eta bortxaketa sexualen kopurua %208 hazi zen, 2007tik 2010era.

Rondónian, emakume gehienak 13 eta 17 urte artekoak dira, eta neskatila horiekin edo emakume helduekin egindako “zerbitzuen” kostua 30 R\$-ren truke ere lortu daitezke. Acretik, Amazoniatik eta Boliviatic “trafikatzeko” dituzte, lana eta maila sozial hobea emango dizkietelakoan, baina gezurra da. Manausko “A Crítica” egunkariko erreportajearen arabera, emakume asko beste estatu batzuetatik etorri dira, sexuaren merkataritzak erakarrita:

Jaci Paraná antzinako arrantzale-herrixka da, eta Porto Velhoko hiritik 100 kilometrora dago, gutxi gorabehera. Dena dela, zentralak eraikitzeak asmoz, ia-ia 10.000 gizon iritsi zirenean, bertako bizilagunen ohiko bizimodua aldatu egin zen erabat. Egurrezko hamarnaka putetxe eraiki zituzten BR-364

Horixe bera da eskualde horretan alabak dituzten amen kezka nagusia. Nova Mutumeko herri kaltetuan bizi zen emakume baten lekukotasunaren arabera, jakin badakigu bere alaba nerabea ere Jaci Paranáko tabernetan bizi zela:

“Berak parranda egin nahi zuen, gauetan irten nahi zuen eta gizonekin geratu nahi zuen. Erkidegoko neska gehienek putetxeetan lan egiten dute, bertan senar abe-

ratsa (langilea) aurkitu eta bizimodu hobea izango dute-lakoan. Honek langile baten bi seme-alaba ditu gaur egun, eta aita nor den ere ez daki”.

Campos Novosko (SC) eta Aimorésko (MG) presetan gertatutakoa

Emakumeek nolako indarkeria jasaten duten egiaztatzen duen beste kasu adierazgarri bat gertatu zen Santa Catarinako Campos Novosko zentral hidroelektrikoan. Bertan ere, langileak atenditzeko putetxeen fenomenoak hedatu zen. Lekukotasunaren arabera, 2005eko maiatzean, “Da Nega” putetxean, kokainaren eta alkoholaren eraginpean zegoen gizon batek hiru emakume eta gizon bat hil zituen, bere bikotekide ohia beste gizon batekin ikusi zuelako.

Putetxe horren inguruan, beste hiru prostituzio-gune zeuden, “Aranhas” eskualdean, hain zuzen ere. Bertako bizilagunen esanetan, emakumeak lau urte lehenago iritsi ziren lokalera, 1.500 inguru lagunik lana ematen zientzen zentral hidroelektrikoko obrak hasi zirenean.

2001etik 2006ra, egoera bera gertatu zen Minas Gerais-ko Aimorésko zentral hidroelektrikoan. Uberabako OSCIP (Gizarte Zibilaren Interes Publikoko Erakundea) den Veiga Institutuko zuzendariak CEDDPHi azaldu zion nolako egoera dramatikoak bizi izan zuten zenbait gaztek eta umek.



“Aimorésko erreferentzia-zentroan lan egiten dut. Tutoresa Kontseiluko kasuetan lan egin dugu. Prostituzio-kasuak ditut, eta, bertan, umeei euren gorputza saltzen dute 0,50 R\$-ren truke, langile asko iritsi direnetik. Hala ere, ez da inolako lan berezirik egin gazte horiekin. Drogen erabilera nabarmen areagotu arren, ez zen inolako prebentziorik egin. Gure gazteek ez dute aukerarik. Lana emango zietela agindu zieten, baina ez dute inor prestatzen. Hori dela eta, ez dago lanik”.

Prostituzioaren merkatuarekin batera, pertsonen trafikoa, sarritan sexu bortitzaren traumatik eta erasoetatik ihes egiteko erabilitako drogen larregizko kontsumoa eta trafikoa eta sexuaren bidez kutsatutako gaixotasunak (HIES) ere nabarmendu behar dira.

F) ENERGIAREN ESKURAPENA

Presak eraikitzean gertatutako bortxaketak alde batera utzita, eredu energetikoaren beste kontraesanetako bat ere azpimarratu behar dugu. Brasilen, 30 milioi lagunek baino gehiagok ez dute energia elektrikorik etxean.

Emakumeek etxean energia elektrikorik gabe garatzen duten lana oso gogorra denez, giza energia gehiago erabiltzen dute, lana errazten duen teknologiarik ezari aurre egiteko. Ura etxetik urrun bilatu eta berotu egin behar dute, familia bainatzeko eta otordu bakoitzeko janaria prestatzeko, ez dagoelako janari hori kontserbatzeko modurik. Horrez gain, energiari gabe, biztanle gehienek ez dute komunikazio eta informaziorako sistemak inolaz ere eskuratzetik; esate baterako, irratia, telebista edo telefonoa.

Bestetik, Brasilgo familiek munduko bosgarren energia-tarifa garestiena ordaintzen dutenez, enpresen irabazi-asmoa ezohikoa da benetan, energiaren prezioa petrolioaren balioan dagoelako oinarrituta. Horrez gain, energia are garestiagoa da kontsumitzaile arruntentzat enpresa handientzat baino. Esate baterako, VALE enpresak hiru zentabo ordaintzen ditu kW-ko; eta bizilekue-tako kontsumitzaileek, batez besteko 0,50 R\$, hau da, 15 aldiz gehiago, gutxi gorabehera. Hori dela eta, ama askok seme-alabentzako janaria murriztu behar dute hilabete askotan, energiaren tarifa ordaindu ahal izateko.





Emakume kaltetuen borroka

*“Gizona iritsi egiten da, eta natura desegiten du.
Jendea kanporatzen du, presa eraikitzen du
eta den-dena aldatu egingo dela dio.*

(...)

Bizitza osoa urpera doa.

Ur-jauziaren gainetik, Gaiola desagertuko da.

*Sobradinhoko jautzian presa eraikiko dutenez,
herriak alde egiten du, ito egingo ote den beldur da-eta.”*

(Sá e Guarabira, Sobradinho)

Herri-musikaren esanetan, presen eraikuntzan emakumea barik “gizona” da “heldu” eta natura bera “desegiten duena”, “jendea” kanporatzeko. Beraz, agerikoa da desberdintasun hierarkikoa dagoela: gizonak dira zentral hidroelektrikoen eraikuntzari buruzko erabakiak hartzen dituztenak. Nolanahi ere, Presek Kaltetutako Mugimenduko biztanle kaltetuak 20 urtez borrokatu eta hobekuntzak lortu ondoren, gaur egun ez da egia horrelako presa handiak aurkezten direnean “herriak alde egiten duela, ito egingo ote den beldur da-eta”. Herria antolatuta eta presen aurka borrokatzen da, eta gehien borrokatzen direnak emakumeak dira, euren bizimoduak suntsitu ez ditzaten.

Tuíra indigena emakume horietakoa da. 1989an, Eletronorte enpresak Kararaô zentralaren eraikuntzari buruz eztabaidatzeko entzunaldi publikoa egin zuen. Zentral hori eraikitzean, hain zuzen ere, ingurumenaren gaineko eragin sakonak sortuko ziren, eta kaiapós erkidegoen bizi-baldintzak suntsituko ziren. bilera batean, kaiapós gerlariek “Kararaôk gure seme-alabak itoko ditu!” oihukatzen zuten bitartean, Tuíra emakume indioak ekimena hartu eta garai hartan Eletronorteko presidentea zen José Muniz Lopesi egin zion aurre. Izan ere, jakinarazi egin zion emakumeen kemenak eta adoreak ez ziotela utziko beste holokausto bat egiten, eta aihotzaren xafla jarri zion aurpegian. Egintza sinboliko horren ondorioz,

zentralaren proiektua 10 urtez eten zen, eta Munduko Bankuak ez zuen obra finantzatu.

Biziraupenerako beharrezkoak diren ondasunak lortzen uzten ez dieten desberdintasunezko prozesu hierarkiko horietan murgilduta badaude ere, Tuíra bezalako emakume kaltetuek tinko aurre egiten diote egoerari, euren etxeak, bizitzak eta lurraldeak ez uzteko: ez dute inoiz amore ematen, aurretiaz borrokatu ez badira, behintzat. Antolakuntza-prozesuetan, gizonen alboan borrokatzen dira, historiari begira antolaera patriarkala bideratu duten aurrekontzeptuak gainditzeko.

Emakumeek MABn garatu duten borroka emaitzak izan ditu zenbait eskualdetan, oraindik ere nahikoak ez diren arren. Hegoaldean, esaterako, mugimenduaren lorpena izan da emakumeen lanindarra aitortu izana, etorkizuneko birkokapeneko lur-esparrua kuantifikatzeko. Beraz, CDDPHren adierazpena berretsi da, kaltetuen egoera ez delako txarragoa MABko borrokari eta antolakuntzari esker.

Horren adierazgarri, 2003an Presek Kaltetutako Lehen Topaketa Nazionalen parte-hartzaileen %25 emakumeak baziren ere, 2006an egindako Bigarren Topaketa Nazionalen %40 ziren emakumeak. Izan ere, bete-betean parte hartu zuten jarduera guztietan. Era berean, egia ere bada presek kaltetutako emakumeen antolakuntza ugalduta egin dela eta gero eta kalitate handiagokoa dela. 2011. urtean, Presek Kaltetutako Emakumeen Lehen Topaketa Nazionala egin zen, eta 16 estatutako 500 emakumek parte hartu zuten bertan.

Presek Kaltetutako Emakumeen aldarrikapenak eta proposamenak

“Gaur egungo sistemak bere horretan dirauen bitartean, gauzak halakoxeak izango dira beti. Hori dela eta, nire ustez oso garrantzitsua da iraultzaileek lehen bataila familian bertan irabaztea, hau da, emakumeek, gizonak eta seme-alabek langileen borrokan parte hartzea. Horrela bada, familia bera lubaki zeharkaezina izango da etsaiztat.”

(Si me dejan hablar..., Moema Viezzer)

Presek kaltetutako emakumeen giza eskubideen errespetua bermatzeko, presak eraikitzen dituzten organismo publikoek eta enpresek CDDPHko Batzorde Bereziak emakumeentzat egindako gomendioak ezarri behar dituzte:

- IBAMAK eta estatueta lizentziak ematen dituzten ingurumen-organoei eskatu egin behar dute ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketetan eta txostenetan honako haxe agertzeko: programa eta proiektu bereziak derrigorrean sortzea, gartzea eta ezartzea, presek kaltetutako emakumeen galerak arintzeko, berreratzeko, ordezkatzeko, ordaintzeko eta konpentsatzeko.
- Inguruabar guztietan, estatueta gobernuak eta udalek euren eskumenen esparruan bermatu behar dute presek kaltetutako emakume guztiek behar besteko berehalako laguntza jasoko dutela, obraren ondorioz sortutako errealitate berriari aurre egiteko. Era berean, sustatzaileei eskatu beharko liekete kostu horiek guztiak euren gain hartzeko.
- Presek kaltetutako emakumeei ziurtatu behar diete sustapenen plangintzako, ezarpeneko eta garapenerako etapa guztietan bete-betean parte hartu ahal izango dutela.

Euren eskubideak bermatzeko, kaltetutako emakumeek antolatu eta borrokatu egin behar dira, behar besteko eragina edukitzeko, mugimenduan parte hartzen dutela ziurtatzeko eta gizartean bertan euren eskubide sozial, ekonomiko, politiko zein kulturalak sendotzeko. Honako haxe proposatzen dugu, emakumeen partaidetza politikoa indartzeko eta eskubidedun subjektutzat hartzen dituztela bermatzeko:





- Gobernu Federaleko Giza Eskubideen Idazkaritzak koordinatutako Lan Taldea sortu behar da, emakume kaltetuen aurkako indarkeriaren diagnostikoa egiteko.
- Gobernuak MABren partaidetza daukan Lan Taldea sortu behar du Elektrobrás sistemarekin batera, biztanle kaltetuen tratamendurako irizpideak eta politikak zehazteko. Horrez gain, tratamendu-eskubide berberetarako neurriak sortu behar dira emakume kaltetuentzat.
- Estatuak politika publikoak sortu behar ditu, informazioa eskuratzen dutela, bete-betean parte hartzen dutela eta behar den moduko baldintzak dituztela bermatzeko. Horrela, bada, giza eskubideen urraketeki aurre egin ahal izango die.
- Estatuak behar besteko programa sortu behar du Osasun Ministerioaren bidez, kaltetutako biztanle ahulen gaixotasunen, tratamenduaren eta prebentzioaren diagnostiko xeheagoa egiteko.
- MABn, gero eta esparru eta mekanismo gehiago sortu behar dira, emakumeen benetako partaidetza sustatzeko.

Euren historiako subjektuak diren emakume kaltetuek zer egin ugari dituzte oraindik. Horrez gain, gizonen eta emakumeen arteko harreman berriak ere eratu behar dituztenez, gure gizarteko egiturazko aldaketan alde borrokatu beharra dago, Brasilek berak Herri Proiektua eta Herri Proiektu Energetikoa behar dituela kontuan hartuta.





www.derechoshumanosdelcampesinado.org

www.mundubat.org

www.facebook.com/Mundubat



Diru-laguntza:

